



**TOLOSAKO UDALAREN ETA URKIZU ETA AUZOTXIKIA AUZOETAKO
ALURTXIKI AUZO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, URKIZU ETA
AUZOTXIKIAREN GARAPENERAKO HELBURU ZERREDA GAUZATZEKO**

Tolosan, 2014ko irailaren 23an.

Alde batetik, Ibai Iriarte San Vicente, Tolosako Alkate-Lehendakaria, 72.487.486 L, NAN zenbakia duena

Besterik, Iñaki Iraola Gorostidi, Tolosako URKIZU auzoko ALUR TXIKI AUZO ELKARTEAREN izenean, 44.162.518-B NAN zenbakia duena.

Nire aurrean, Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Udaleko idazkaria.

Bi aldeek hitzarmen hau gauzatzeko nahiko lege gaitasuna eta ahalorde askietsia badituztela aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE

- I. ALURTXIKI AUZO ELKARTEAREN helburua honoko hau dela: URKIZU ETA AUZOTXIKIAko bizilagunak antolatzeko modua egitea, auzotarren bizitza kalitatea hobetzeko eginbeharretan aktiboki eta arduraz parte hartzeko eta laguntzeko. Eta ildo horretatik, ALURTXIKI AUZO ELKARTEAK, hainbat jarduera burutzeko asmoa duela gizarte, kultur eta kirol alorretan, eta eskaerak ere egingo dizkiola Udalarik URKIZU ETA AUZOTXIKIAko auzoen garapenerako hirigintzaren eta azpiegituren gainean.
- II. Lehen adierazitakoaren ondorioetarako, ALURTXIKI AUZO ELKARTEAK URKIZU eta AUZOTXIKIA auzoen garapenerako helburu zerrenda bat aurkeztu duela Udalean, erakunde honek konpromisoa har dezan hura bultzatzeko, gai horietan eskuduntza duten erakundeak inplikarazteko eta berari dagozkionak gauzatzeko.
- III. Udalak beharrezkotzat jotzen duela marko iraunkor bat sortzea URKIZU eta AUZOTXIKIA auzoen garapen integralerako eta bere bizilagunen eta Udalerriko hirigunekoaren arteko harremanak eta erakunde komunekin dituztenak sendotzeko.
- IV. Bestalde, Udalak URKIZU eta AUZOTXIKIA auzoetako aurreikusten duela zenbati proiektu finantzatzeko 2014tik aurrera.
- V. Horregatik guztiagatik, eta behar bezala antolatzeko Udalerrian eta URKIZU ETA AUZOTXIKIA auzoen interesak eta hartutako konpromisoak eta egitekoak diren ekarpenak, bi aldeek Hitzarmen hau formalizatzen dutela, hurrengo klausula hauekin.

KLAUSULAK

LEHENA.- Tolosako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) 2014 urtetik aurrera hurrengo gai hauek bideratzea:



1. Ekipamenduak

- 1.1.- Lokal polibalentea. Azalera
- 1.2.- Parkea
- 1.3.- Panel informatiboa jarri auzoa (gutunontzien ondoan). Elkarreak bilera deialdi edota ekintza desberdinen berri emateko auzotarrei.
- 1.4.- auzoko txoko, baserri natur guneak etab. Seinalizatu, auzotarrekin elkarlanean.
- 1.5.- Baserrietan suteen aurreko prebentzio eta baliabideak indartu.
- 1.6.- Ur zikinen egoera eta kudeaketa sistema egokia aztertu plan espeziala egitean.

2. Zerbitzuak

- 2.1.- Ur hornidura aztertu
- 2.2.- Urkizu eta Auzotxikiako auzoetako egokia izan daitekeen garraio zerbitzua sortu.
- 2.3.- Elurretako palaren zerbitzua mantendu.
- 2.4 Auzoa garbi eta txukun egon dadin, garbiketa eta mantenuko zerbitzu egokia izan dadin urtean garbiketa eta belar mozketak bermatu.

3. Kulturaren alorrean:

- 3.1.- Udalak auzoa har dezala kultur ekintza ezberdinak antolatzen modura, bertan dauden kultur ondarean ezagutzera emateko baliabideak jarri.
- 3.2.- Tolosako Udaleko kultura eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuekin batera urtean 2 ikastaro eskulan eta entretenimendu jarduerak antolatu auzoan.
- 3.3.- Ekintza eta Jarduera ezberdinetarako (Jaiak, emakumeen eguna, hitzaldiak etab.) finantzamendua, beti ere kultur, kirol eta jai programazio bat aurkeztuz.
- 3.4.- Auzoa ezagutarazteko eta erakartzeko ekimen berritzaileak antolatu. (Mendikuteko gotorlekura, Ernio inguruan ibilbideak, Lizardiren ibilbidea...)

4. Bideak:

Herri bideak berreskuratu. Hauek zerrendatu, sailkatu, egoera eta konbenioak aztertu eta mantenu plangintza bat osatu.

5. Hirigintza:

Etxebizitza politika aktiboa eta egokia bultzatu. Plan espeziala martxan jartzeko aukera aztertu.

6. Partehartze alorra:

- 6.1.- Udalak AHTari buruzko informazioa eskaini.
- 6.2.- Tolosako eta Albizturereko udaletxeen arteko elkarlana definitu ekintzak burutzeko (errepidearen konponketa, ur horniketa, mugarriak, elurretako pala..)



7. Jardueren finantziakzioa:

Gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jartzea. Dirulaguntza bi zatian ordainduko da, % 50a Udalak dirulaguntza onartutakoan eta gainontzekoa dirulaguntza zuritzerakoan).

7.1.- Urte hasieran, udalak dirulaguntza onartu ahal izateko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Urteko ekintzen memoria
- Urteko aurrekontua

7.2.- Dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Fakturak
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

8. Web orria

Tolosako Udala edo Tolosaldea Tour-ren web orrian espazio berezi bat edukitzea Urkizu eta Auzotxikia auzoak bere inguruak ezagutzera emateko.

9. Garraioa

Tolosako Udalak, Tolomendik eta Urkizuko auzoak aztertuko dute garraio publiko bat nola bideratu daitekeen auzoan.

BIGARRENA: Segimendu Batzordea.-

Hitzarmen honetan adierazitako ekintzak eta lanak gainbegiratzeko eta bultzatzeko, eta proiektu berriak, aurrekontu aurreikuspenak eta Urkizu eta Auzotxikia onerako den beste edozer proposatzeko, Segimendu Batzordearen adostasunarekin garatutako dira urteko Gestio Planaren exekuzioa barne. Horretarako sortzen den batzorde hau honelaxe egongo da ostuta:

- Zinegotzi bat, batzorde burua izango da eta behar ezker beste bat.
- Bi ordezkari, Urkizu eta Auzotxikiako Auzo elkartearenak edo bertan sor daitezken auzo elkartearenak, baldin eta beren helburu sozialak auzoko gaien gestioaren zerikusia badu eta ez, soilik gai jakin baten gaineko irizpide sektorialeko espezializatu baten ondorioz sortuak izan badira.
- Idazkari lanak "auzoak" sektore daraman udal departamenduko administrari batek egingo ditu.

Batzordearen funtzionamendua batzordekideek berek erabakiko dute batzordea eratzen denean edo ondorenean. Bitartean, udal batzorde informatiboen arauak izango dira aplikagarriak.

Gainera, URKIZU/AUZOTXKIARI BURUZ Udalak aintzat har dezakeen edozein proposamen Segimendu Batzordearen jakinean jarriko du alde aurretik, honek bere edukiaren berri emateko ukitzen dituen auzotarrei.



TOLOSAKO
UDALA

Batzordeak, gonbidatu ahal izango ditu, aholkulari bezala, Tolomendiko teknikariak, URKIZU eta AUZOTXIKIAko auzoaren garpenerako helburuak zehazteko ordura sor daitezkeen zalantzak argitzeko edo laguntzeko.

Bileren maiztasuna, bi hilabetez behin izango da.

HIRUGARRENA: Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere edukiaren interpretazioa Segimendu Batzordeari dagokio.

LAUGARRENA: Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta lau urteko iraupena izango du. Halere, urtebeteko luzapenak egin ahal izango dira, nahi hori idatziko agirian formalizatuta.

Hitzartutako guztia jasota gera dadin, hitzarmen honen hiru ale sinatzen dira, hasieran aipatutako toki eta egunean.



Iñaki Iraola Gorostidi J.



Ibai Iriarte San Vicente J.

Nire aurrean
IDAZKARIA

